

Koiuntura di-da batean

2017ko otsaila

Aurkibidea

1. Hazkundera
2. Inflazioa
3. Konfiantza
4. Munduko merkataritza
5. BPGa ingurunean
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,9 hazi zen laugarren hiruhilekoan.

Estatistika horretan kalkulaturako enplegua %1,9 hazi zen urte arteko tasan.

2. IPRI balio positiboetara itzuli da.

Petrolioaren salneurria da adierazle hori gorarazi duten faktoreetako bat.

3. EAEko enpresarien konfiantzak hobera egin du urte hasieran.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia bereziki baikorra da.

4. Nazioarteko merkataritzak ezin izan du hazkunde erritmoa finkatu.

Esportazioen bolumena %0,3 bakarrik hazi zen hirugarren hiruhilekoan.

5. Inguruneko ekonomiek erritmo onean amaitu dute urtea.

Bai Txinak bai AEBek hirugarren hiruhilekoko datuak hobetu zituzten.

6. NDFk munduko hazkundearen aurreikuspeni eutsi die.

Ekonomia garatuek hoherantz egiten dute eta garapen bidean daudenek, berriz, okerrerantz.

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %2,9 hazi zen laugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek 2016ko laugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomia %2,9 hazi zen urte arteko tasan epealdi horretan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Horren ondorioz, urte osoko batez besteko aldakuntza tasa %3,1 izan zen, azken urteetako baliorik gorena delarik. Hala hiruhilekoaren datua nola urtearena Ogasun eta Ekonomia Sailaren aurreikuspena baino hamarren bat gorago kokatu dira. Beste aldetik, 2016ko gehikuntzari esker krisiaren aurreko BPGa berreskuratu da, prozesu horretan zortzi urte behar izan direla. Prentsa oharrak seinalatzen duenez, ekoizpen sektore dinamikoak industria eta zerbitzuak izan dira eta eraikuntzaren ekarpena ere positiboa izan da, baina txikiagoa.


Barne produktu gordina

Urte arteko aldakuntza tasa




Barne produktu gordina

2008. urtea = 100



Enplegua kontu ekonomikoetan

Urte arteko aldakuntza tasa




BPGaren gehikuntzarekin batera enpleguaren bilakaera ona etorri zen, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, urte arteko tasan %1,9 hazi zirelako. Zenbaki hori aurreko lau epealdietan jasotakoaren oso antzekoa da eta enplegua sortzeko orduan egonkortasun handia dagoela iradokitzen du. Beraz, 2016ko batez besteko enplegu sorrera ere %1,9an kokatu zen. Horrek esan nahi du urte osoan 16.500 lanpostu garbi inguru sortu zirela. BPGaren kasuan adierazi den bezala, enpleguan ere 2016an lortutako gorakada azken urteetako handiena da. Hala ere, oraindik asko falta da krisiaren aurreko garaian zegoen lanpostuen kopurua berreskuratzeko. Izan ere, 2008an zenbatetsi ziren 985.500 lanpostuen aldean, 2016ri dagokion kopurua 899.300 ingurukoa izango da. Hori dela eta, urte batzuk beharko dira oraindik aipatu den maila horretan berriro egoteko.


BPGaren eta enpleguaren susperraldien arteko aldea produktibitatearen irabaziak azaltzen du, azken urteetan handi samarra izan delako. Izan ere, hala 2016an nola aurreko urteetan EAEko produktibitatea bere balio historikoaren (%1,1) gainetik ibili da, ingurunean emaitza okerragoak jaso dituzten bitartean.

Enplegua kontu ekonomikoetan

Urte arteko aldakuntza tasa

**Enplegua kontu ekonomikoetan**


2008. urtea = 100



INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

IPRI balio positiboetara itzuli da


IPRI. Indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa



Industria prezioak %0,7 igo ziren 2016ko abenduan urte arteko tasan. Hori izan da 2014ko ekainetik jaso duen lehen aldakuntza tasa positiboa. Igoera hori, bereziki, petrolioaren goranzko bilakaerak baldintzatu zuen, aurreko urtean merkatu zen bitartean. Hala eta guztiz ere, urte amaieran tasa positibo bat izan zuen arren, azken urteko batez besteko IPRIa negatiboa (%-2,9) izan zen, aurreko hiru urteetan bezala.

IPRI Urte arteko aldakuntza tasa			
	2015	2016	2016ko abendua
INDIZE OROKORRA	-2,6	-2,9	0,7
Sektore banaketa			
- Ateratze industriak	-0,4	-1,0	-1,3
- Manufaktura industria	-3,3	-2,3	2,1
- Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	1,6	-6,5	-7,8
Industria sektore handien arabera			
- Kontsumo ondasunak	-0,6	0,7	1,5
- Kontsumo ondasun iraunkorrak	-0,3	-0,4	-0,1
- Kontsumo ondasun ez iraunkorrak	-0,7	1,0	2,1
- Ekipo ondasunak	0,3	0,9	1,0
- Bitarteko ondasunak	-0,8	-2,2	-0,5
- Energia	-11,6	-11,1	4,2

Kontsumo ondasunak
Urte arteko aldakuntza tasa



Ekipo ondasunak
Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomia helburuaren arabera, IPRIA osatzen duten taldeen artean, energiaren prezioen portaera nabarmendu zen, %4,2 garestitu zelako, hots, azaroko tasa baino zortzi puntu eta bi hamarren gehiago. Tasa hori 2012ko urritik inoiz jaso den urte arteko gehikuntzarik handiena da. Dagoeneko aipatua izan den petrolioaren eraginaz gain, argindarraren ekoizpenak, garraioak eta banaketak ere lagundu zuten igoera garrantzitsu horretan. Halaber, bitarteko ondasunek ere lagundu zuten industria prezioen goranzko norabide horretan eta oraindik tasa negatibotan (%-0,5) jarraitzen badute ere, azaroaren aldean urte arteko tasa gehien igo zutenetakoak izan ziren, energiarekin batera. Kasu horretan, metalurgia eta produktu metalikoak tasa positiboetara itzuli ziren, hileko askoan beren salneurriak merkatu eta gero. Gainontzeko taldeek urte arteko aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten, baina aurreko hilekoaren aldean hazkunde txikiak, ekipamendurako ondasunetan gertatu zen bezala, edo jaitsiera txikiak, kontsumoko ondasunetan jazo zen moduan, bakarrik ezagutu zituzten.

Bitarteko ondasunak
Urte arteko aldakuntza tasa




Energia
Urte arteko aldakuntza tasa



ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresarien konfiantzak hobera egin du urte hasieran

Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Euskadi




INEk argitaratzen duen enpresarien konfiantza indize harmonizatuaren datuek hobekuntza erakusten dute EAEko enpresarien konfiantzan 2017ko lehen hilekoetan. Izan ere, adierazle horrek orain eskuratu duen balioa (130,9) serie historiko labur horretako altuena da. Emaita bereziki ona da amaitu berri den hiruhilekoaren balorazioan, erantzun baikorrak ezkorak baino gehiago izan zirelako, nolabaiteko tarte zabal batekin, saldoa 4,6ra iritsi baitzen. Aitzitik, hasi berri den hiruhilekoaz dituzten igurikimenak oraindik zertxobait negatiboak dira (-2,3), baina ez dira gehiegi urundu aurreko epealdietan jaso ziren emaitzetatik, egonkortasun handia erakutsiz.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia



Hasiko den hiruhilekoaz duten iritzia




MUNDUKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritzak ezin izan du hazkunde erritmoa finkatu

Munduko esportazioen bilakaera

Bolumen indizea. 2005T1=100




Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arabera, 2016ko hirugarren hiruhilekoan munduko esportazioak bolumenean neurtuta, hots, prezioen eta truke tasaren aldakuntzak zuzenduta, %0,3 hazi ziren. Hazkunde hutsal horrek baieztatzen du aurreko hiruhilekoan hasi zen susperraldiaren ahultasuna, iazko hasieran bizi zen jaitsieraren ondoren. Halaber, agerian uzten ditu ekonomia eremu garrantzitsu batzuetan dauden zailtasun iraunkorrak, munduko merkataritzan oraindik eragina dutenak. Izan ere, MMAk beherantz zuzendu du munduko merkataritzaren bolumenean 2016an espero zuen hazkundera, aurreko aurreikuspeneko %2,8tik oraingo %1,7ra. Aurreikuspen hori betetzekotan, merkataritzaren hazkunde erritmoa 2009ko finantza krisiaren ondorengo txikiena izango zen.

SALGAIEIEN MERKATARITZA BOLUMENEAN

	2014 IV	2015 I	2015 II	2015 III	2015 IV	2016 I	2016 II	2016 III
ESPORTAZIOAK								
Guztira	4,8	3,9	2,9	2,2	1,1	-0,4	0,8	0,3
Ipar Amerika	5,1	4,7	2,3	1,4	-1,3	-0,1	-1,1	1,4
Hego eta Erdi. Amerika	-1,3	-1,9	0,8	2,5	4,7	5,7	1,2	-1,1
Europa	3,0	2,5	3,9	2,5	1,9	1,5	-0,1	0,5
Asia	8,4	7,1	3,2	2,4	0,7	-4,2	1,8	0,4
IMPORTAZIOAK								
Guztira	3,7	4,0	2,4	1,7	1,4	-1,7	0,3	-0,1
Ipar Amerika	7,7	10,0	7,2	7,2	3,0	0,2	0,2	0,0
Hego eta Erdi. Amerika	0,7	5,1	-2,0	-3,5	-7,1	-16,1	-7,2	-9,5
Europa	2,4	4,4	2,9	2,4	4,0	3,0	3,0	2,9
Asia	3,9	1,4	1,2	0,7	1,1	-4,4	-0,6	-0,8

Salgaien esportazioak herrialdeka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Asiako urte arteko hazkundea %0,4ra mugatu zen. Datu hori eta iazko hasieran jasotakoa dira 2009tik izan dituen okerrenak. Hala ere, Asiak paper nabarmena jotzen du oraindik nazioarteko merkataritzaren bilakaeraren. Hain zuzen ere, eremu horren indizea 188,8an dago, mundu osoarena 141,7an dagoen bitartean. Distantzia luze batera dago Ipar Amerika (144,2), AEBen bultzada garrantzitsuak (151,6) goratua. Azken herrialde hori %1,9 hazi zen eta atzean utzi zuen etengabeko jaitsieren urtebete bat.


Analisia Europar Batasunean fokatuta, eremu barneko salmentak izan dira eta oraindik dira esportazioen bulzagile nagusia, zeren eta eremutik kanpoko herrialdeetan saldutakoa ez baita suspertzen, euroaren balioa nabarmen murriztu den arren. Dagoeneko lau hiruhilekoz jarraian hazkunde negatiboak jaso ditu.

EUROPAR BATASUNEN SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENEAN. Urte arteko tasak

	2014 IV	2015 I	2015 II	2015 III	2015 IV	2016 I	2016 II	2016 III
Guztira	3,0	2,6	4,0	2,6	1,9	1,5	-0,2	0,3
Europar Batasuna barne	3,2	3,8	4,3	3,3	3,4	3,2	1,9	1,9
Europar Batasuna kanpo	2,6	0,5	3,3	1,2	-0,6	-1,4	-3,7	-2,3

Salgaien inportazioak eremuka

Bolumen indizea. 2005T1=100




Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA).

Inportazioei dagokienez, Europak bai Batasunaren barruan bai kanpoan bizitasuna erakutsi zuen arren, Asiaren, Hego eta Erdialdeko Amerikaren eta gainontzeko eremuen (Afrikarena bereziki) erosketen bilakaera txarrak inportazioen bilakaera baldintzatu zuen, %0,1 gutxitu baitziren. Ipar Amerika eremu dinamikoenetako bat izan zen 2014an eta 2015ean, baina 2016an hazkunde hutsala izan zuen, neurri handi batean inportazio estatubatuarrek erritmoa galdu zutelako eta %0,1 murriztu. Horixe da beraien daturik txikiena 2013ko hirugarren hiruhilekotik.

INGURUKO HAZKUNDEA


Inguruneko ekonomiek erritmo onean amaitu dute urtea

AEBetako BPGa
Urte arteko tasa



Iturria: BEA eta ELGE.


Txinako BPGa
Urte arteko tasa



Argitaratu diren lehen zenbatespenen arabera, AEBak %1,9 hazi ziren 2016ko laugarren hiruhilekoan, kontsumo eta inbertsio pribatuari esker, bederatzi hilekoz jarraian etengabeko jaitsierak jaso ondoren eremu positibora itzuli zelako. 2016 urte osoan, %1,6ko gehikuntza lortu zuen, 2015ean eskuratutakoa baino puntu bat gutxiago. Kontsumoan eginiko gastu txikiagoak eta inbertsio pribatuaren murrizketak azaltzen dute moteltzea.

Txinaren BPGa, berriz, %6,8 areagotu zen iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiru hiruhilekoetan baino hamarren bat gehiago. Urte amaierako hilekoetan bizi zen bizkortze arinak Txinako ekonomia eredu berriaren egonkortasuna indartzen ari dela pentsarazten du. Eredu horretan, kontsumoak BPGaren hazkundeari %64,3 ekarri dio. Urteko terminoetan, munduko bigarren ekonomiaren jarduera %6,7ra iritsi zen. Datu hori Pekineko helburura egokitu da, 2016an BPGaren gehikuntza %6,5aren eta %7,0aren artean kokatu nahi zuelako.

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko tasa




Beste aldetik, Europar Batasunak ondo eraman zituen esparru ekonomikoan eta politikoan zeuden ziurgabetasunak eta urte osoan zehar egonkortasuneko irudia eskaini zuen. Hain zuzen ere, iazko azken hiruhilekoan beraren ekonomia jarduera %1,9 hazi zen berrito. Eurogunearen bilakaera antzekoa izan zen, nahiz eta bere erregistroak txikixeagoak izan ziren urte osoan zehar (%1,8 azken hiruhilekoan). Horren ondorioz, 2016ko batez beste-koan Europar Batasuna %1,9 hazi zen eta Eurogunea, berriz, %1,7.

Iturria: Eurostat.

Erresuma Batuko BPGa


Urte arteko tasa



Iturria: Eurostat eta Insee.

Frantziako BPGa

Urte arteko tasa




Eraikuntzaren susperraldiak eta zerbitzuen sendotasunak bide eman zioten Erresuma Batuari hazkunde erritmoa %2,2an finkatzeko 2016ko laugarren hiruhilekoan. Horrek %2,0an kokatzen du urte osoko tasa, 2015eko balioa baino bi hamarren beherago, baina 2010etik eskuratu duen batez bestekotik oso hurbil. Gorakada horrek iradokitzen du britainiar ekonomiak oraingoz ez dituela nabaritu Europar Batasunetik irteteko erabakiaren kalteak, nahiz eta kontsumo pribatuak laster hautemango duela espero da.

Insee-ren zenbatespenen arabera, Frantziako ekonomiari on egin zion familien kontsumoaren eta inbertsioaren suspertzeak, eta %1,1 hazi zen, hirugarren hiruhilekoan pairatu zuen erritmo galera arina atzean utziz. 2016ko balantzean, frantziar ekonomia %1,1 handitu zen, 2015ean eskuratutakoa baino bi hamarren gutxiago. Hala eta guztiz ere, eta egonkortasuneko irudia eskaini duen arren, oraingo emaitzak urrun daude krisi aurrekoetatik.

Espainiako BPGa

Urte arteko tasa



Espainiako ekonomia Europar Batasuneko buruan ibili zen urte amaieran. Hain zuzen ere, 2016ko laugarren hiruhilekoan, ekonomia jarduera %3,0 areagotu zen, eta urte osoko gehikuntza tasa %3,2an kokatu zuen, aurreko urteko hazkunde erritmoa berdinduz. Hori horrela izanda, azken hiruhilekoa arte argitu ez zen ziurgabetasun politikoko urte batean, espainiar ekonomiak gurutzealdi abiadura biziari eutsi zion eta hazkunde positiboa lortu zuen hirugarren urtez jarraian.


Iturria: INE.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

NDFk munduko hazkunde aurreikuspenei eutsi die

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk argitaratu dituen azken aurreikuspen ekonomikoen arabera, 2017an mundua %3,4 haziko da eta 2018an, berriz, %3,6. Tasa horiek bat datoz aurreko txostenean, urrikoan, ezagutarazi ziren datuekin. Hala eta guztiz ere, ekonomia aurreratuek gorantz zuzendu dituzte beren hazkunde aurreikuspenak, AEBetan aurreikusten den zerga pizgarrian oinarrituta. Aitzitik, azaleratzen ari diren ekonomietan hazkunde aurreikuspenak okertu dira, finantzaziorako baldintzak okerragoak izango direlako.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,1	3,4	3,6	0,0	0,0
Ekonomia aurreratutak	1,6	1,9	2,0	0,1	0,2
AEB	1,6	2,3	2,5	0,1	0,4
Eurogunea	1,7	1,6	1,6	0,1	0,0
Alemania	1,7	1,5	1,5	0,1	0,1
Frantzia	1,3	1,3	1,6	0,0	0,0
Italia	0,9	0,7	0,8	-0,2	-0,3
Espainia	3,2	2,3	2,1	0,1	0,2
Erresuma Batua	2,0	1,5	1,4	0,4	-0,3
Japonia	0,9	0,8	0,5	0,2	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,1	4,5	4,8	-0,1	0,0
Txina	6,7	6,5	6,0	0,3	0,0
India	6,6	7,2	7,7	-0,4	0,0
Errusia	-0,6	1,1	1,2	0,0	0,0
Brasil	-3,5	0,2	1,5	-0,3	0,0

Iturria: NDF.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak




Garatzen ari diren herrialdeen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Txinaren politika ekonomikoak eragin duen pizgarriak herrialde horretarako epe laburreko aurreikuspenak gorantz berrikustea ahalbidetu du. Hala ere, hori ez zen nahiko izan azaleratzen ari diren ekonomien hazkunde aurreikuspenak, oro har, hobetzeko. Izan ere, eremu horretako herrialde gehienek beherantz berrikusi zituzten beren aurreikuspenak. Nabarmentzekoak dira, izan duten jaitsierengatik, India (-0,4), kontsumoaren bilakera negatiboak eraginda, eta Brasil (-0,3), epe laburrean suspertuko den igurikimena txikiagoa delako.

Azkenik, ekonomia aurreratuen artean, Erresuma Baturako egin den aurreikuspena nabarmendu behar da, bertako barne eskariak espero zena baino hobeto erantzun diolako Brexitaren garaipenari.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9
Familien kontsumoa	3,1	—	2,9	3,3	3,4	3,1	—
Administrazioaren kontsumoa	1,8	—	2,0	2,4	2,7	0,8	—
Kapital eraketa gordina	2,8	—	2,8	3,4	3,7	3,1	—
Barne eskaria	2,8	—	2,7	3,1	3,3	2,7	—
Esportazioak	0,6	—	2,3	4,2	3,0	1,6	—
Inportazioak	0,6	—	1,6	3,9	3,2	1,3	—
Lehen arloa	13,4	—	24,3	11,6	2,8	-0,7	—
Industria	3,9	—	4,9	4,8	2,4	2,9	—
Eraikuntza	0,5	—	-0,2	-0,3	2,7	1,9	—
Zerbitzuak	2,9	—	2,8	3,0	3,4	3,1	—
Balio erantsi gordina	3,1	—	3,2	3,3	3,1	3,0	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	—	2,0	3,2	3,2	2,9	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2016ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016	2017				2017
	IV		I	II	III	IV	
BPG	2,8	3,0	2,4	2,2	2,2	2,4	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,9	2,2	1,8	2,0	2,1	2,0
Familien kontsumoa	2,8	3,1	2,4	2,0	2,2	2,4	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,0	1,7	1,2	1,1	1,1	1,0	1,1
Kapital eraketa gordina	2,9	3,3	2,6	2,4	2,8	3,2	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	3,0	2,4	2,0	2,2	2,5	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	-0,1	0,0
Lehen arloa	4,3	4,5	0,1	2,0	-4,1	-6,2	-2,1
Industria	2,5	3,2	2,1	2,0	2,5	2,8	2,3
Eraikuntza	1,5	1,5	1,2	1,2	1,8	2,3	1,6
Zerbitzuak	2,9	3,1	2,6	2,4	2,3	2,3	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	3,0	2,4	2,2	2,3	2,4	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,7	3,0	2,2	2,0	2,0	2,1	2,1
Enplegua	1,8	1,8	1,6	1,6	1,7	1,7	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
Funcas	3,3	2,2	Laboral kutxa	3,0	2,3
CEPREDE	3,2	2,4	Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2
Confebask	3,0	2,5	BBVA	2,7	2,4

Iturria: CEPREDE (2017ko urtarrila), BBVA (2016ko azaroa), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko abendua), Funcas (2016ko urria) eta Hispalink (2016ko azaroa) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,2	3,2	3,6	3,4	3,4	3,2	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	—	3,2	3,4	3,2	2,8	—
Kontsumo publikoa	2,0	—	2,7	2,0	0,8	1,4	—
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	—	6,4	4,8	3,6	3,1	—
- Aktibo finko materialak	6,5	—	6,8	4,9	3,7	3,2	—
- Eraikuntzan	4,9	—	5,0	3,1	2,0	2,0	—
- Ekipamendu ondasunetan	8,8	—	9,6	7,6	6,1	4,9	—
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	—	4,0	4,2	3,5	2,6	—
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	—	3,8	3,5	2,9	2,6	—
Esportazioak	4,9	—	5,0	4,1	6,4	2,8	—
Inportazioak	5,6	—	6,1	4,8	5,1	0,9	—

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2016	2017		2016	2017
AFI	3,3	2,5	Intermoney	3,2	2,3
BBVA	3,3	2,5	Repsol	3,3	2,8
Bankia	3,2	2,5	Santander	3,3	2,5
Caixa Bank	3,3	2,6	Solchaga Recio & asociados	3,2	2,4
Cemex	3,2	2,5	BATEZ BESTE	3,2	2,4
CEEM-URJC	3,3	2,3	Gobernua (2016-12)	3,2	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,1	Espainiako Bankua (2016-12)	3,2	2,5
CEOE	3,2	2,3	Europar Batzordea. (2016-11)	3,2	2,3
FUNCAS	3,3	2,4	NDF (2017-01)	3,2	2,3
ICAE-UCM	3,3	2,5	ELGE (2016-11)	3,2	2,3
IEE	3,2	2,3	The Economist (2017-01)	3,2	2,3
IFL-UC3M	3,2	2,5	Consensus Forecast (2017-01)	3,2	2,4

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2015		2016		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,6	1,6	1,9	1,6	1,3	1,7	1,9
Txina	6,9	6,7	6,8	6,7	6,7	6,7	6,8
Japonia	0,6	—	1,2	0,3	0,9	1,0	—
Kanada	0,9	—	0,4	1,3	1,1	1,3	—
Europar Batasuna	2,2	1,9	2,1	1,8	1,8	1,9	1,9
Eurogunea	2,0	1,7	2,0	1,7	1,6	1,8	1,8
Alemania	1,7	1,9	1,3	1,8	1,7	1,7	—
Frantzia	1,3	1,1	1,2	1,2	1,1	0,9	1,1
Erresuma Batua	2,2	2,0	1,7	1,8	2,0	2,2	2,2
Italia	0,7	—	0,9	1,0	0,8	1,0	—
Herbehereak	2,0	—	1,1	1,2	1,9	2,5	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko urtarrileko aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,3	2,3	2,4	2,3	4,6	4,5
Japonia	1,1	0,9	0,6	0,9	2,9	2,8
Kanada	2,0	2,0	2,0	2,0	6,8	6,7
Europar Batasuna	1,5	1,6	1,4	1,7	—	—
Eurogunea	1,4	1,5	1,4	1,4	9,7	9,3
Alemania	1,3	1,5	1,7	1,7	6,1	6,2
Frantzia	1,3	1,4	1,2	1,4	9,5	9,3
Erresuma Batua	1,4	1,4	2,5	2,6	5,2	5,4
Italia	0,7	0,9	0,9	1,1	11,4	11,0
Herbehereak	1,7	1,6	1,2	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.